



JARDUERAK ANTOLATZEA – Maila Bakarra

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

Ondoren proposatzen diren neurriak 4 kategoriatan daude sailkatuta, aplikazio unearen arabera:

- **Diseinua (D)**. Ingurumen plana erabakitzen den unean baloratu eta zehaztu beharreko ekintzak dira.
- **Kontratazioa (K)**. Kontratazio pleguetan zehaztu behar direnak edo zuzeneko kontratazioan erabakiak gidatu behar dituztenak dira.
- **Prestaketa (P)**. Kontratatzailearentzako betebeharrekin edo gauzatze klausulekin zehaztu behar diren neurriak dira. Dena den, jarduera baino lehen garatuko dira, haren antolakuntza lanen zati gisa.
- **Gauzatzea (G)**. Jardueran aplikatu beharreko neurriak dira. Prestaketako neurriak bezala, pleguetan zehaztu behar dira enpresa lizitatzailleek ingurumen ikuspuntutik zer lan egin behar dituzten jakin dezaten.

Horrez gain, IT hizkiekin (idazkaritza teknikoa) markatu dira jardueraren logistika eta administrazioaz arduratzen den enpresari dagozkion lanak, baita zuzenean administrazioari dagozkionak ere, baldin eta azken hori bada jardueraren antolaketaz zuzenean arduratzen dena.

Exijentzia mailarik aurkeztu ezean eta hasierako irizpideak hautatzen laguntzeko, izartxo batekin markatzen dira (*) lortzen zailenak izan daitezkeenak. Zailtasun horiek hainbat arrazoik eragindakoak izan daitezke: sektorearen sentsibiltate eza, enpresek ingurumenari dagokion informazioa emateko ohiturarik ez izatea edo eskaintzen dituzten zerbitzuetan proposatutako ingurumen exigentziak nola ezarri ez jakitea¹.

¹ Irizpide horiek sektore honetako enpresekin egindako elkarrizketa foroaren emaitzetatik abiatuta hautatu dira. Antzeko lanetako ezagutza eta eskarmentua ere kontuan hartu dira.

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

Jarduera baterako kontratatzen den enpresa edozein motatakoa izanda ere, kontratuaren helburuan argi zehaztu behar da zerbitzua ingurumenarekiko modurik egokienean gauzatuko dela. Hona hemen adibide batzuk:

1. Koadroa

Helburua jarduera bateko komunikazio materialaren inprimaketa egingo duen enpresa bat kontratatzea da. Ingurumenarekiko begirunea bermatu beharko da, bai zerbitzua eskaintzeari dagokionez, baita amaierako produktuei dagokienez ere.

2. Koadroa

Nekazaritza ekologikoko produktuak erabiliko diren jarduera baterako *catering* enpresa bat kontratatzea da helburua, baita ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta ingurumenarekiko hobekien diren prozedura eta praktikak erabiltzea ere.

3. Koadroa

Jarduera baterako idazkaritza teknikoa kontratatzea da helburua. Enpresa esleipendunak eta azpikontrataturako enpresek jardueraren antolaketa, garapen eta amaiera faseetan kontuan izan beharko dituzte kontratatzaileak zehazten dituen ingurumen baldintza guztiak. Baldintza horiek plegu honetan jasota daude.

Jardueraren helburua ingurumen eragina murriztea da. Horretarako, energia eta ur gutxiago kontsumituko da, zabor gutxiago sortuko da eta jardueran kontsumitutako produktuen fabrikazioarekin lotutako bestelako eraginak ere murriztu beharko dira.

2. Erabakitze irizpideak, espezifikazio teknikoak eta/edo kontratua gauzatzeko baldintzak

Ondorengo taulan agertzen dira jardueretarako ingurumen irizpideak, jardun eremuaren eta aplikazio unearen arabera sailkatuta.

Ondoren agertzen den ekintzen zerrenda kontrola egiteko zerrenda gisa erabil daiteke jardueraren garapenean, neurriak betetzen diren edo ez markatzeko. Horretarako, zerrenda egokitu egingo da lan bakoitza egin behar deneko data edo unea jartzeko. Ekintzak kronologikoki ordenatuko dira eta erantzukizunak esleituko dira.

INGURUMEN IRIZPIDEEN TAULA			
Jarduera gauzatu deneko tokia aukeratzea			
<input type="checkbox"/>	Herriak ingurumenaren etengabeko hobekuntzarako politika eta programa bat prestatu eta ezarri du (Tokiko Agenda 21, Tokiko Ekintza Plana 21, eta abar).	D	
<input type="checkbox"/>	Herrira erraz irits daiteke garraio publikoaren bidez (beste herri batzuetatik zuzenean) eta nazio/nazioarteko jendea egonez gero, hegazkinez edo trenez joan daiteke bertara.	D	
Idazkaritza teknikoa aukeratzea			
<input type="checkbox"/>	Enpresak ingurumena kudeatzeko politika eta sistemak ditu ezarrita edo ageriko frogekin egiaztatzen du ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri dituela.	K	*
<input type="checkbox"/>	Lanaren dokumentazio guztia paper birziklatuan inprimatuko da.	E	
<input type="checkbox"/>	Idazkaritzaren lanetan sortutako hondakinak gaika bilduko dira.	E	
<input type="checkbox"/>	Adierazleak kalkulatzeko zehazten zaizkien datu guztiak bildu behar ditu enpresak eta ingurumen neurriak aplikatzerakoan izandako gertakarien berri eman.	E	*
Jarduera egingo den tokia eta aretoak aukeratzea			
<input type="checkbox"/>	Ekitaldian erabilitako gune eta aretoetako energia kontsumoarekin lotutako CO ₂ isuriak konpentsatuko dira.	D	
Jarduera egingo den tokia aukeratzea			
Jarduera egiteko hautatzen den tokiak ingurumen neurriak ezarrita izan behar ditu. Ondorioz, tokiak honako irizpide hauek betetzen dituela bermatu behar da (irizpide guztientzat egiaztatgiriak eskatuko dira) ² :			
<input type="checkbox"/>	Erraz irits daiteke garraio publikoaren bidez.	K	
<input type="checkbox"/>	Inguruan hizlariak/parte-hartzaileek ostatua har dezaketen hotelak daude.	K	

² Informazio horrekin baloratuko da ingurumenarekiko portaera. Tokia aukeratzeko haren kostuak eta ingurumenarekiko portaera neurtuko dira.

<input type="checkbox"/>	Toki horrek ingurumena kudeatzeko politika eta sistema ezarrita ditu edo ageriko frogekin egiaztatzen du ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri dituela.	K	
<input type="checkbox"/>	Areto eta gune guztietan argiztapena eta klimatizazioa bakoitza bere aldetik kontrola daitezke, eta erabileraren arabera erregulatu ahal izango dira.	K	*
<input type="checkbox"/>	Beharrezko ekipamendu eta laguntza teknikoa daude bertan (agertokia, ordenagailuak, eta abar).	K	
<input type="checkbox"/>	Adierazleak kalkulatzeko eskatzen zaizkien datuak eman behar dituzte arduradunek, baita ingurumen neurriak aplikatzerakoan izandako gertakarien berri ere.	E	*
Aretoak aukeratzea			
<input type="checkbox"/>	Bilguneetan, kafe atsedendietarako, otorduetarako eta erakusketak egiteko guneetan argi naturala egongo da.	K	
<input type="checkbox"/>	Aretoek argi naturala dute eta argi hori kontrolatzeko mekanismoak erabilerrazak dira.	K	
<input type="checkbox"/>	Aretoek klimatizazio eta argiztapen sistema independenteak dituzte eta aretotik bertatik erregulatu daitezke.	K	
<input type="checkbox"/>	Aretoak modularrak dira, beraz, haien tamaina bertan dagoen jende kopuruaren neurrira egokitu daiteke.	K	
<input type="checkbox"/>	Gune eta aretoek hondakinak gaika biltzeko puntuak dituzte, eta hala ez bada, jarduerarako jarriko dira.	K/P	
Hotelak aukeratzea			
Jarduera egiteko hautatzen diren hotelek ingurumen neurriak ezarrita izan beharko dituzte. Ondorioz, hotelek honako irizpide hauek betetzen dituztela bermatu behar da (<i>irizpide guztientzat egiaztatgiriak eskatuko dira</i>) ³ :			
<input type="checkbox"/>	Hotelera erraz irits daiteke garraio publikoaren bidez.	K	
<input type="checkbox"/>	Jarduera egingo den tokitik gertu dago hotela.	K	
<input type="checkbox"/>	Hotelak ingurumena kudeatzeko politika eta sistema ezarrita ditu edo ageriko frogekin egiaztatzen du ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri dituela.	K	
<input type="checkbox"/>	Hotelak bezeroei bere ingurumen politikaren berri ematen die eta baliabide natural gutxiago erabiltzeko zer ekarpen egin dezaketen ere adierazten die.	K	
Autobus enpresa aukeratzea			
<input type="checkbox"/>	Autobus zerbitzuan kontsumitzen den erregaiari lotutako CO ₂ isuriak konpentsatu egingo dira.	D	

³ Informazio hori erabiliko da hotel bakoitzak ingurumenarekiko duen portaera baloratzeko. Hautaketa egiteko hotelek dituzten kostuak eta ingurumenarekiko portaera neurtuko dira.

Ekintza paraleloetan (bisitaldiak) parte hartzen duten hizlari eta parte-hartzaileak aireportutik edo inguruko herrietatik garraiatzeko autobus zerbitzua kontratatzen bada, enpresak isurketa txikiko autobusak eta gidatze ekologikoan trebatutako gidariak izango ditu. Ondorioz, honako betekizun hauek baloratuko dira (<i>eskakizun guztien inguruko egiaztagiria aurkeztu beharko dira</i>) ⁴ :			
<input type="checkbox"/>	Enpresak ingurumena kudeatzeko politika eta sistema ditu ezarrita edo froga argiekin egiaztatzen du zerbitzua emateko, tailerretarako, eta abarrerako ingurumen neurriak ezarri dituela.	K	*
<input type="checkbox"/>	Modu ekologikoan gidatzeko trebatutako gidarien ehunekoak.	K	*
<input type="checkbox"/>	Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren ibilgailuak: <ul style="list-style-type: none"> • Gutxienez EURO 5 isurien estandarra betetzen dute. • Beren funtzioei araberakoak dira. 	K	
<input type="checkbox"/>	Kontratatutako zerbitzuaren Ibilgailuen batez besteko CO ₂ isuriak.	K	*
<input type="checkbox"/>	Adierazleak kalkulatzeko eskatzen zaizkien datuak eman behar dituzte arduradunek, baita ingurumen neurriak aplikatzerakoan izandako gertakarien berri ere.	E	
Mugikortasun neurri gehigarriak			
<input type="checkbox"/>	Saio batzuetan edo guztietan bideokonferentziak egingo dira.	D	
<input type="checkbox"/>	Hizlariak ekitaldira egiten dituzten joan-etorriei lotutako CO ₂ isurketak konpentsatu egingo dira.	D	
<input type="checkbox"/>	Garraio publikoa erabiltzeko beherapenak aplikatzea (batez ere jarduera luzeen kasuan).	P	I T
<input type="checkbox"/>	Bizikleten mailegu zerbitzua, hoteletatik eta garraio publikotik jardueraren tokira eta parte-hartzaileentzat ekintzak dauden beste tokietara joateko.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Bertaratzen direnentzat bizikletak uzteko toki gehigarriak jartzea.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Gertueneko garraio publikoaren geltokiak adieraztea	P	I T
<input type="checkbox"/>	Autoa partekatzeko aukera sustatzea honako webgune espezializatuen bidez www.compartir.org edo zerbitzua zuzenean eskainiz.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Jarduera egingo den tokiaren inguruan aparkatzeko debekua eta partekatzen ez dituzten autoentzat sarrera mugatua. Auto partekatuentzako, autobusentzako eta txirrindularientzako sarbidea.	E	I T
Jardueraren hedapena			
<input type="checkbox"/>	Jardueraren hedabide nagusia web orri bat izango da.	D	
<input type="checkbox"/>	Iragarkiak eta gonbidapenak posta elektronikoaren bidez bidaliko	D	

⁴ Informazio hori erabiliko da garraio enpresa bakoitzak ingurumenarekiko duen portaera baloratzeko. Hautaketa egiteko garraio enpresak dituen kostuak eta ingurumenarekiko portaera neurtuko dira.

	dira, ez paperean (ezohiko kasuetan izan ezik).		
<input type="checkbox"/>	Jardueraren aurretik eta ondoren hizlariekin harremanetan jartzeko bideak posta elektronikoa eta telefonoa izango dira. Bide horiek erabiliko dira beharrezko dokumentazio guztia bidali eta onartzeko (erregistro orria, informazio interesgarria, eta abar).	D	
<input type="checkbox"/>	Parte-hartzaileak web bidez erregistratuko dira. Fax bidez egiteko aukera ematen bada, ahalik eta formulario txikiena diseinatuko da (orrialde bat litzateke onena).	P	I T
<input type="checkbox"/>	Jardueraren ingurumen ezaugarriei buruzko mezuak prestatuko dira (aplikatutako neurriak, nola iritsi garraio publikoaren bidez, CO ₂ isuriak konpentsatzeko aukera, eta abar), honakoetarako: <ul style="list-style-type: none"> Programa, gonbidapenak, dokumentazioa eta sarea. Zeremonia-maisua. Harrera, <i>halla</i>, aretoak eta <i>catering</i> mahaiaik. 	P	
<input type="checkbox"/>	Hizlarien/parte-hartzaileen dokumentazio guztia sarean jarriko da.	E	I T
<input type="checkbox"/>	Paperean inprimatzea erabakitzen diren dokumentu guztiak (dekoratzeko materiala, <i>dossier</i> erako informazioa, intsigniak...) paper birziklatuan (kontsumitu ondorengo gutxienez % 65) inprimatu beharko dira, alde bietatik eta formatu estandarretan (esaterako, DIN A4 edo A3), tinta metalizaturik gabe, eta ahal dela 2 tintatan.	K	
<input type="checkbox"/>	Diseinatzaileei jardueraren ingurumen politikaren berri emango zaie. Gai horretan dituzten praktikak eta beren lana egiteko ingurumen politika horri jarraituz dituzten edo erabiliko dituzten bitartekoak eskatuko zaizkie.	K	*
Dekoratzeko materiala			
<input type="checkbox"/>	Dekoratzeko elementu kopurua behar den txikiena izango da.	D	
<input type="checkbox"/>	<i>Bannerrak</i> , posterrak, eta abar modu generikoan diseinatu eta idatziko dira, jarduera bati bakarrik begira idatzi beharrean. Horrela, beste foro, mintegi, eta abar batzuetan erabili ahal izango dira.	D	
<input type="checkbox"/>	Seinaleak (geziak, harrera egiteko kartela, eta abar) beste jarduera batzuetan erabiliko dira edo erabili ahal izango dira.	K	*
<input type="checkbox"/>	Dekoratzeko materialak hautatzeko garaian, material horiek dituzten ingurumen ezaugarriak eta berriz erabiltzeko dituzten aukerak ezagutu beharko dira, horrela, ingurumenean eragin txikiena dutenak aukeratzeko.	K	*
<input type="checkbox"/>	Landare apaingarriek ez dituzte landare edo lore ebakiak izango, baizik eta landare osoak. Egun bat baino gehiagoko iraupena duten jardueretan landareak jartzen diren tokiko (barruan edo kanpoan) baldintzetara ongien egokitzen direnak hautatzeko	K	

	ahalegina egingo da.		
Jardueran erabiltzeko materialak			
<input type="checkbox"/>	Dosierraren edukia ahalik eta laburrena izango da (programa, ebaluazio orria...) eta ez dira hor sartuko papereko aurkezpenak. Papereko aurkezpenak parte-hartzaileen eskura sarean jarri beharko dira handik deskargatu ditzaten. Izan ere, parte-hartzaile guztiei ez zaizkie hitzaldi guztiak interesatuko	D	
<input type="checkbox"/>	Parte-hartzaileei/hizlariari informazioa emateko dosierra egiteko honako hauek erabiliko dira: material birziklatua eta ingurumenarekiko eragin txikia duena (paper/kartoi birziklatua, ekologikoki ekoiztutako ehunak edo plastiko birziklatua)	K	I T
<input type="checkbox"/>	Boligrafoak eskatu ahala emango dira, eta ingurumen irizpideren baten arabera aukeratuko dira: plastiko biodegradagarrikoak (Mater-bi edo antzekoa), paperezkoak, FSC egurrezkoak, plastiko birziklatuzkoak, portamina.	K	I T
<input type="checkbox"/>	Hizlari eta VIPentzako opariak ingurumen irizpideei jarraituz hautatuko dira.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Intsigniak berrerabilgarriak izango dira.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Aretoetan markagailu ezabagarriak dituzten arbelak egongo dira paperaren ordeiz. Markagailuek ez dute substantzia toxikorik izango. Paperezkoak badira, paper birziklatuzkoak izan beharko dute.	P	I T *
<input type="checkbox"/>	Aretoetan edo gunetan birziklatze puntuak daude. Gutxienez papera, ontziak eta gainerako hondakinen gaikako bilketa egiteko edukiontzia daude. Puntu horiek erraz ikusteko moduan edo behar bezala seinaleztatuak daude.	P	I T
<input type="checkbox"/>	Jardueraren amaieran intsigniak jasotzen direla bermatzea. Horretarako, kaxa bat edo gehiago jarriko dira zertarako diren adierazten duen kartel batekin irteeran, areto nagusian edo egokitzen jotzen den. Toki berean jaso daitezke berriro erabil daitezkeen beste elementu batzuk; hala nola, parte-hartzaileek itzuli egin nahi dituzten arkatzak edo boligrafoak.	E	I T
<input type="checkbox"/>	Triptikoen, katalogoen eta inprimatutako beste dokumentu batzuen jabeen galdetzea banatu ez direnak itzultzea nahi duten, beste une batean erabili ahal izateko.	E	I T
Catering zerbitzua kontratazea			
<input type="checkbox"/>	Janariaren beharra kontuz planifikatzea, beharrezkoak ez diren hondakinak ez sortzeko. Izena emateko formularioan edo jarduerak irauten duen bitartean harreran izena ematea eskatuz	P	I T
<input type="checkbox"/>	Enpresak ingurumena kudeatzeko politika eta sistema ditu ezarrita edo honako alderdien inguruko neurriak:	K	*

	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakinen gaikako kudeaketa. - Energia eta ur gutxiago kontsumitzen duten ekipoak. - Sasoiko produktuak, organikoak, transgenikoak ez direnak... hautatzea. 		
<input type="checkbox"/>	Erabiliko den nekazaritza ekologikoko produktuen ehunekoa eurotan (aldi berean bidezko merkataritzaren irizpideak betetzen dituztenak adierazi daitezke).	K	*
<input type="checkbox"/>	Menuak egiteko erabilitako sasoiko produktuen ehunekoa. Produktu horien zerrenda bat emango da eta proposatutako menuak aurkeztu beharko dira.	K	*
<input type="checkbox"/>	Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko neurriak. Horretarako, ontziratu gabeko produktuak edo edukiontzi handietan sartzen direnak erabiliko dira, ez ontzi indibidualetan saltzen direnak. Ahal den neurrian, kristalezko botiletan jarriko dira edariak (ura, freskagarriak, zukuak). Botilak, ahal dela, itzulgarriak izango dira. Zerrenda bat aurkeztu beharko da hornitu beharreko produktuak, ontzien edukiera eta ontziak egiteko erabilitako materiala adieraziz.	K	
<input type="checkbox"/>	Ura iturrikoa izango da eta kristalezko txarroetan aterako da.	E	
<input type="checkbox"/>	Berriz erabil daitezkeen ontziak, mahai-tresnak eta mahai-zapiak (baita ezpain-zapiak ere) erabiliko dira nahitaez. Ezpain-zapiak paper birziklatuzkoak ere izan daitezke.	K	
<input type="checkbox"/>	Elikagaiak garraiatzeko eta entregatzeko edukiontzi berrerabilgarriak erabiltzea.	K	
<input type="checkbox"/>	Enpresak zerbitzua eskaintzen duenean gaikako bilketa egiteko konpromisoa hartuko du.	E	
<input type="checkbox"/>	Adierazleak kalkulatzeko eskatzen zaizkien datuak eman behar dituzte arduradunek, baita ingurumen neurriak aplikatzerakoan izandako gertakarien berri ere.	E	*
Prestakuntza/Informazioa			
<input type="checkbox"/>	Areto eta jarduera egiten den tokiko arduradunentzako informazioa, klimatizazioa egokia eta eraginkorra dela bermatzeko. Neguan 20-21 °C-koa izango da tenperatura, eta udan, berriz, 25 °C-tik gorakoa. Klimatizazioa egunaren amaieran itzali egin beharko da eta gune jakin bat egunean zehar edo jarduerak irauten duen bitartean gehiago erabiliko ez bada, toki horretakoa ere itzali egin beharko da	P	
<input type="checkbox"/>	Cateringeko pertsonalak hondakinen kudeaketari, horien gaikako bilketari eta eskaintako produktuen ingurumen ezaugarriei buruzko informazioa emango du	P	
<input type="checkbox"/>	Toki horretako garbitzaileei informazioa ematea jarduerak iraun duen bitartean ezarritako gaikako bilketa egiten jarrai dezaten	P/E	

	(jarduera egiten den tokian, berez gaikako bilketarik egiten ez bada).		
<input type="checkbox"/>	Autobus gidariei modu ekologikoan gidatzeari buruzko informazioa ematea ⁵	P	
<input type="checkbox"/>	Harreragileen/laguntzaileen informazioa ingurumen neurriei buruz (garraio publikoa, material berrerabilgarriak itzultzea, hondakinen gaikako bilketa, eta abar)		
<input type="checkbox"/>	Zeremonia-maisuari ingurumen neurriei buruzko informazioa eta jakinarazi behar dituen ingurumen mezuei buruzko informazioa ematea; honako hauek esaterako: sareko aurkezpenen eskuragarritasuna, CO ₂ isuriak konpentsatzeko aukera, eta abar.	P/E	
<input type="checkbox"/>	Hizlariari informazioa ematea, proiektagailuak gehiago erabiliko ez direnean itzal ditzaten eta beren saioa amaitutakoan argiak itzali edo teknikariari itzaltzeko eska diezaioten (antolakuntzako norbait honetaz arduratzen ez bada behintzat).	P/E	
<input type="checkbox"/>	Sortzen dituzten hondakinak gaika biltzea beharrezkoa dela jakinaraziko zaie. Soberako dokumentazioa prestatzeko ere eskatuko zaie, hura itzul diezaieten (informazio postuak edo erakundeen postuak badaude).	P/E	

3. Esleipen irizpideak eta eskaintzen aurkezpena

Kontratu guztietan bezalaxe, administrazioak garbi zehaztu beharko du zerbitzu bakoitza kontratatzeko orduan zer irizpide baloratuko diren eta bakoitzari zenbat puntu emango zaizkion.

Administrazioak kontratazio espediente bat hasten duen kasu guztietan, pleguetan kontratazioaren une ezberdinetarako irizpide espezifikoak zeintzuk diren adieraziko da. Derrigorrezkoak edo baloragarriak diren ere zehaztuko da, administrazioaren konpromiso edo helburuen arabera. Irizpideak pixkanaka sartzeari gomendatzen da kopuruari eta derrigortasunari dagokionez. Horrela, merkatua prestatu ahal izango da. Zerbitzuen antolakuntza eta azpikontratazio osoa egiteko enpresa bat kontratatzen bada, enpresa horrek beste enpresa hornitzaileak azpikontratatzeko parametroak ezagutu beharko ditu. Horrez gain, azpikontrataturako enpresek egin behar dituzten lanak zeintzuk diren ere jakin beharko du, lehenago horietako bakoitzarentzat zehaztutako ingurumen irizpideak ere kontuan hartuz. Lan horiek nola egingo dituen ere zehaztu beharko du enpresak. Pleguaren zati hori aholkularitza kontratu baten antzekoagoa da zerbitzu kontratu batena baino.

⁵ Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuaren eskuliburua erreferentzia gisa erabil daiteke: Industria ibilgailuen gidarientzako modu eraginkorrean gidatzeko eskuliburua. Madril. 2005. http://www.idae.es/uploads/documentos/documentos_10297_TREATISE_ConduccionEficienteVehIndustriales_A2005_2ad0233c.pdf